

## 5. GAIA GERRA ZIBILA (1936-39)

### 5.1 Altxamendu militarra eta gobernuaren erantzuna

1936ko hauteskundeetan Fronte Popularra izan zen garaile; Hego EHan EAJ eta ezker errepublikarrak nagusitu ziren Gipuzkoan eta Bizkaian; Araban eta Nafarroan, aldiz, eskuin tradizionalista karlista.

Azaña gobernuburu, 31ko konstituzioaren errespetatzeko asmotan erreformak egiteari ekin zioten, baina gizartean kontraesana zen nagusi eta barne banaketa sakonak gertatu ziren, iraultza giroa areagotu zen (anarkisten eskutik), polarizazio politikoa areagotuz. Batetik kontserbadoreak, monarkikoak, katolikoak, militarrek (africanistak bereziki) Espainia bakarrik defendatzen zuten, konfesionaltasuna, ordena... horren aurrean Ezkertiarrak zeuden, laikotasuna, demokrazia, askatasunak... defendatuz.

Eskuindarrek ERK.aren kontra antolatutako konspirazioa prest zegoen. Armadako goi karguak monarkikoekin eta karlistekin elkartu ziren ERK.a eraisteko, Nafarroa izanik gune nagusienetakoa Mola jeneralarekin.

1936ko uztailaren 17an Marokon hasi zen Altxamendu Nazionala, soldadu taldeak ERK.aren kontra matxinatu zirenean Franco jeneralaren gidaritzapean. Horrek Gerra Zibila ekarri zuen eta esperientzia demokratiko errepublikarra suntsitzea.

Hurrengo egunean altxamendua penintsulara hedatu zen, garaipen partziala lortuz, izan ere, hasieratik ez zuten armadaren guztizko babesaren erresistentzia aurkitu zuten. Espainia bi alderditan banatu zen, Nazionala eta Errepublikarra. Hasieran ERK.aren eremuak handiagoak ziren baina laster egoera parekatu zen eta halan hasi zen gatazka zibil luzea.

Errepublikari leialak izaten eutsi zioten gune garrantzitsuak, Madril, Bartzelona, Valentzia... Kantauri kostaldea ere, gurean Bizkaia eta Gipuzkoa. Arlo sozialean proletargoa, jornalariak, sindikalistak, ejerzitoaren erdia,, leialak izan ziren.

ERK.ako gobernuaren erantzuna hasieran desantolatua izan zen, ez baitzuten espero estatu-kolpea hain indartsua izatea. Neurri erabakigarriena herritarrei armak ematearena izan zen, proletargoari, jornalariari, sindikatuei (UGT, CNT...) Hauek miliziak sortu zituzten altxamendua gelditzeko asmotan.

Aurrerago, Largo Caballero berrantolaketa militarrean ahalegindu zen erabakiak zentralizatzeko Ejerzito Popularra sortuz (anarkistek ez zuten ejerzitorik onartzen, ezta disziplinarik). Honela, komunista (disziplina zorrotza) eta anarkisten liskarren ondorioz Negrin izan zen gobernuburu berria; indar errepublikarrak batzen ahalegindu zen, anarkistak baztertuz eta komunisten babesarekin, baina Katalunia erortzean erbesteratu zen.

Gobernua barne ezberdintasun handiak zeuden, bertan sozialistak, komunistak, euskal nazionalistak... eta baita anarcosindikalistak ere; batzuk erabakiak zentralizatzea eskatuz, beste batzuk kolektibizazioekin jarraitu, besteak autonomiarekin jardun... Honela, langileen eta sindikatuen esku geratu zen agintea, benetako iraultza soziala hasiz.

Beste alde batetik, nazioarteko laguntza bilatzen ahalegindu zen gobernuak; Frantzia zein Britainia Handia ezezkoa eman zuten, eskatutako hornidura Sobiet Batasunetik heldu zen. Alpatzekoak dira ere nazioarteko brigadistak, faxismoaren aurka boluntarioen indarrak osatua.

ERK.aren helburua Madril defendatzea izan zen, eta herritarrak, Durrutiren zutabe anarkistarekin zein Lehen Brigada Internazionalarekin lotu ere, "Ez dira pasatuko" leloari eutsiz. Hala ere, Nazionalak Alemania zein Italiaren laguntza izan zuten, hasieratik euren nagusitasuna garbi utziz, bai horniduran, antolakuntzan zein diziplinan, gerra irabaztea suposatu zuelarik hiru urteren ondoren.

## 5.GAIA GERRA ZIBILA (1936-39)

### 5.2 Nazioarteko testuingurua.

1936ko uztailaren 17an Marokon hasi zen Altxamendu Nazionala, soldadu taldeak ERK.aren kontra matxinatu zirenean Franco jeneralaren gidaritzapean. Horrek Gerra Zibila ekarri zuen eta esperientzia demokratiko errepublikarra suntsitzea.

Hurrengo egunean altxamendua penintsulara hedatu zen, garaipe partziala lortuz, izan ere, hasieratik ez zuten armadaren guztizko babesa izan eta erresistentzia aurkitu zuten. Espainia bi alderditan banatu zen, Nazionala eta Errepublikarra (Gorriak). Hasieran ERK.aren eremuak handiagoak ziren baina laster egoera parekatu zen eta halan hasi zen gatazka zibil luzea.

Espainiako GZa laster bihurtu zen nazioarteko gatazka, atzerriko parte hartzearen eta munduko egoera politikoen ondorioz. Bi bandoek nazioartetik jasotako laguntzak eragin erabakigarria izan zuten gerraren iraupenean, bilakaeran eta azken emaitzan.

Gerra hastean nazioarteko harremanak une kritikoan zeuden; tentsioa areagotu zen demokrazia handien (Frantzia, Erresuma Batua) eta erregimen totalitario-faxisten artean, horrek beste gerra bat ekar zezakeen edozein unetan.

GZak zatiketa handia eragin zuen herrialde demokratikoko iritzi publikoan eta ezinegona ere herri horretako gobernuengan. Kontserbadoreenentzat zibilizazio eta komunismo ateoaren borroka zen; ezkerra eta intelektualeentzat, ordea, askatasunaren eta faxismoaren arteko borroka zen, elkartasuna bilatuz ERK.aren alde.

Frantziak eta Erresuma Batuak esku ez hartzeko politika bultzatu zuten, armak... esportatzea Espainiara debekatuz. ERK.ak jasotako laguntza Sobiet Batasunetik heldu zen bereziki, baina zailtasun handiak zeuden armak, erregaiak... erosteko. Aipatzekoa da Nazioarteko Brigadisten laguntza, faxismoaren aurkako munduko boluntarioz osotuak.

Matxinatuek laguntza erabakigarriagoa izan zuten; alde honetan agintari profesionalen kopurua handiagoa zen, gainera afrikanistak bertan zeuden, Afrikan eskarmentua hartutako militarrek, ondoen prestatuenak. Alemaniak eta Italiak gerrarako material, arma... ugari agin-

du zuten, Condor Legio alemaniarra aipatzekoa Gernikako bonbardaketan, esperimentaziorako balio izan ziona Hitlerreri II. Mundu Gudan erabiltzeko.

Gatazkaren hasieratik garbi geratu zen asaldatuaren nagusitasuna, bai horniduran, antolakuntzan zein disziplinan.

Definitiboa

## 6.GERRA ZIBILA (1936-39)

### 5.3 Euskal Estatutua.

II.ERK.an polarizazio politikoa nabarmena zen , tentsio giroa areagotuz ezkertiar eta eskuindarren artean ; Gizartean kontraesana zen nagusi, barne banaketa sakonak zeuden .Kontserbadoreak -oligarkia , katolikoak , militarrek,monarkikoak ...- katolikotasuna , ordena , Espainia bakarra... defendatzen zuten. Ezkertiarrek , aldiz , demokrazia , laikotasuna ,deszentralizazioa, klase sozialen desagertzea...

ERK.ako erreformak demokrazia , laikotasuna eta kulturaren balioak sustatzeko asmoak gizarte gatazka areagotu zituen. Euskadin nazionalisten autogobernurako nahiak tentsioa areagotu zuen ,beste aktore batzuk zeudelako:

- EAJ. Abertzaletasunaren ordezkari nagusia.
- EAE. Alderdi abertzalea, akonfesionala eta aurrerakoa.
- KARLISMOA. Eskuineko indar nagusia , nekazar guneetan bereziki.

Aro politiko berria hasi zen euskal lurraldean ERK.a aldarrikatzean , autonomiaren auzia garrantzi handia hartuz.EAJk bultzatuta lau probintzietarako proiektu bat prestatu zen , Lizarrako Estatutua , bertan konfesionaltasuna defendatzen zen, eta gai hau izan zen gatazkatsuen ERK.ako gobernu ezkertiarrekin pentsatzean hauek ,EAJ-k ERK.aren kontra egin ahal zuela ; proiektua atzera bota zuten. Aurrera eta atzerapausuak egon ziren prozesu honetan .

1936ko hauteskundeak emaitzek begi bistan utzi zuten EHan hainbat indar politiko zeudela ; Gipuzkoan eta Bizkaian gehiengoa (EAJ eta Fronte Popularra)ERK.a eta Estatutua beteratzearen alde zegoen; EAJ alderdi eskuindar eta klerikala bazen ere , ERK.a defendatu zuen ,identitate propioaren defentsa funtsezkoa baitzen eurentzako. Horrez gain , Bizkaiko industrializazio indartsuak proletario klase soziala sortarazi zuen ,sozialismoaren eta ERK.aren aldekoak .

Arabian eta Nafarroan, ordea, karlista tradizionalistak nagusitzen ziren, Mugimendu Nazionalaren alde eta indar militar indartsua, erreketak, alboan zituzten.

Gerra Zibila hasteak Estatuaren eta behin-behineko gobernuaren osaketaren inguruan Errepublikako gobernuarekin eztabaidatzeko aukera eman zion EAJri. Honela, lehen euskal gobernu autonomoa eratu zen, EAJak zuzendua, Jose Antonio Agirre lehendakaria izanda. Lehen Autonomia Estatutua, estatua deszentralizatzeko legeen multzoa, Guda Zibila hasita lortu zen.

**Estatutu hau aurrepausua suposatu zuen lurralde antolamenduaren ,zentralizazio deszentralizazioaren - arazo historikoan ,nazionalisten autogobernu eskaerak kontuan hartu zirelako lehen aldiz.**

Lurraldearen bakanitzeak autonomiagaz jarduteko aukera eman zion EHari ,eskumen askorekin , txanpon propioa, polizia propioa, Erizaintzaren sorrera, euzko gudarostearen sorrera, nazioarteko politika bideratu...

Dena dela, Eusko Jaurlaritzaren eragina eskasa izan zen, bai lurraldetasunean (Bizkaian) bai denboran.

Gipuzkoa erori ondoren, agerian geratu ziren euskal armadaren gabeziak eta matxinatuen nagusitasuna; Bizkaira mugatu zen defentsa, EHaren autonomia jokoan baitzegoen. Armada frankistak, Condor Legio armada alemaniarrekin, Otxandio, Durango eta Gernika bonbardatu zituen, herritarren erresistentzia eta morala hondatzeko.

Ondoren, nazionalak burdinezko gerrikoa defentsa sistema gainditzea lortu zuten .EHa nazionalen esku erortzean euskal gobernu eta lehendakaria erbestera joan ziren, Frantziara.

Gurean gerra bukatu zen ,baina galtzaileentzat bakea ez zen heldu, ondorioak lazgarriak izan baitziren. Francok Autonomia Estatutua eta Kontzertu Ekonomikoa deuseztatu zituen Bizkaia eta Gipuzkoako "probintzia traidoretan"; errepresioa nagusitu zen , horren oroitzapenak aztarna sakona eta iraunkorra utziz gehiengoengan.

## GERRA ZIBILA ( 1936-39)

### 5.4. Gerraren bilakaera

1936ko uztailaren 17an Marokon hasi zen Altxamendu Nazionala, soldadu taldeak ERK.aren kontra matxinatu zirenean Franco jeneralaren gidaritzapean. Horrek Gerra Zibila ekarri zuen eta esperientzia demokratiko errepublikarra suntsitzea.

Hurrengo egunean altxamendua penintsulara hedatu zen , garaipen partziala lortuz , izan ere, hasieratik ez zuten armadaren guztizko babesa izan eta erresistentzia aurkitu zuten.Espainia bi alderditan banatu zen, Nazionala eta Errepublikarra. Hasieran ERK.aren eremuak handiagoak ziren (Errepublikarrek zati handiena zuten , horien artean Madril , Bartzelona eta Valentzia , baita Asturiasetik Gipuzkoarainoko lurraldea eta bere baliabide industrialak),baina laster egoera parekatu zen eta halan hasi zen gatazka zibil luzea.

Gatazkaren hasieratik garbi geratu zen asaldatuaren nagusitasuna, bai horniduran, antolakuntzan zein disziplinan. Horrez gain , jasotako laguntzek eragin erabakigarria izan zuten gerraren iraupenean eta azken emaitzan.

Matxinatuaren estrategia Madril hartzea zen , altxamendua sendotzeko ;Afrikako armadak Gibraltar zeharkatu ondoren Italia zein Alemaniaren aire armadari esker. Handik iparralderantz egin zuten , Badajoz hartuz biolentzia handiarekin.

Mola jeneralak Nafarroatik erreketekin Madril iparraldeko mendilerroa hurbildu zen , baina miliziek ez zieten utzi aurrera egiten.Nazionalak hurbil zeuden eta gobernuak Valentziara joan zen ; aldi berean , nazioarteko laguntza heltzen ari zen bando bietara ( Condor Legioa zein Sobiet Batasuneko eta Nazioarteko Brigadisten laguntza).

Francok lehenago Toledoko Alcazarra askatu zuen , garaipen politiko eta propagandistiko handia bihurtuz ( Generalísimo izendatu zuten ostean).Bitartean Madrilgo defentsa antolatzen ari ziren (Miaja eta Vicente Rojo militarrek aipagarri).

Madrilgo herriaren erresistentzia handia izan zen ,langile, sindikatuek, herria elkartuta , " ez dira pasatuko " leloa defendatu zuten,eta eustea lortu ere.

Francok uko egin zion hiriburuaren eraso zuzenari , iparralde bakandua konkistatzeko asmotan. Higadura-gerra bat hasi zuen, lurraldea okupatuz eta armada errepublikanoa deuseztatuz.Mola jenerala buru , Gernikaren bonbardaketa

aipatzekoa da, Condor Legioak bideratua eta guztiz suntsitu zuena hiri historiko eta sinboliko hau, herritarren adorea hondatzeko asmoz. Bilboko defentsa sistema – Burdinezko Gerrikoa- ere superatu zuten nazionalak 1937an, Euskal Gobernu eta lehendakaria erbestera joan zirelarik. Ostean, Kantabria eta Asturias ere erori ziren nazionalen esku, euren fabrika eta baliabide guztiekin batera.

Hurrengo helburua errepublikarrak zatitzea zen, Mediterraneoraino helduz; hemen aipatzekoa dugu Teruelgo bataila, nazionalak nagusituz, izan ere, 1938an jadanik Sobiet Batasunetik armak eta hornidurak aldizka iristen ziren; lurralde errepublikarra zatitzean matxinatuen abantaila begi bistan geratu zen.

Tropa frankistak Valentziatik gertu zeudenez, Gobernu errepublikarrak kontraerasoa egiteko agindu zuen, unitaterik prestatuenak elkartuz eta Ebro ibaia zeharkatuz; hau izan zen errepublikarren azken eraso handia, gerrako batailarik luzeena eta odoltsuena, azkenean nazionalak nagusitu zirelarik.

Honen ondoren legezko Espainiaren egoera oso larria zen, lurraldea banaturik zegoen, elikagaiak, armak... falta ziren, barne gatazka gogorak zeuden komunista eta anarkisten artean... honela, 1939an Francok Katalunia erasotu eta hartu zuen, lurralde guztiak bere esku eroriz.

Errepublikarrek errendizioa aurkeztu zuten, baldintza barik, izan ere, Franco ez zegoen prest akordio batera heltzeko, guztizko garaipena bilatzen baitzuen.

1939ko apirilaren batean Gerra Zibila amaitu zen, baina bakea ez zen heldu galtzaileentzat, zapalkuntza luze eta krudela hasi zen eurentzat.

Aitor Perez 2026/1/21

## GERRA ZIBILA (1936-39)

### 5.5 Definitiboa

#### ERRETAGOARDIAKO INDARKERIA

1936ko uztailaren 17an Marokon hasi zen Altxamendu Nazionala, soldadu taldeak ERK.aren kontra matxinatu zirenean Franco jeneralaren gidaritzapean. Horrek Gerra Zibila ekarri zuen eta esperientzia demokratiko errepublikarra suntsitzea.

Espainiako GZa laster bihurtu zen nazioarteko gatazka, atzerriko parte hartzearen eta munduko egoera politikoen ondorioz. Bi bandoek nazioartetik jasotako laguntzek eragin erabakigarria izan zuten gerraren iraupenean, bilakaeran eta azken emaitzan.

Altxamenduak ez zuen lortu estatu errepublikanoa eraistea berehala eta iraultza saihestea euren helburuetariko bat zela esan bazuten ere, estatu-kolpeak iraultza eragin zuen azkenean.

Gobernu errepublikarra Mola jeneralarekin akordio batera heldu nahi izan zuen, baina ezezko irmoa jaso zuen; gobernuak altxamenduari aurre egiteko langileei armak banatzeko agindu zuen, boterea sindikatuen esku geldituz.

Hauek sarri modu autonomoan aritzen ziren, benetako iraultza soziala hasi zelarik. Honela, herri-auzitegiek terrorea zabaldu zuten, inolako kontrolik gabe; kontserbadore, katoliko... nabarmenak hiltzen hasi ziren, "terrore gorria" izenarekin ezagutu zen sasoi hau, bereziki Madrilen. Elizak... erretzen hasi ziren, militar zein politikari eskuindarrak hil, baita lurjabeak, enpresaburu faxistak... (Paracuellos del Jaramako hilketek irudi oso negatiboa izan zen errepublikarrentzat, kaltetuz nazioarteko babesa lortzea).

Beste alde batetik, terrore faxista zegoen; orokorrean bando honetan hilketak antolatuak eta sistematikoak ziren, errepublikar bandoan, ostera, desantolatua eta muturrekoek bideratutakoa euren kontura, inolako agindu barik.

Nazionalak

Hasieratik asaldatuek errepresio basati, sistematiko eta selektiboa egin zuten, terrorea eriteko asmoarekin eta erresistentzia zapuzteko. Lehen biktimak orden publiko zein militar leialak izan ziren, ondoren politikariak, FPeko alderdi zein sindikatuak, intelektualak (Lorca...), funtzionarioak (maisua bereziki)...

Horrez gain, "sakak" eta "paseoak" erabili zituzten bi bandotan hiltzeko eta hobi komunetan lurperatuz.

┌ Orokorrean, ERK.aren bandoan basakeri hau desorden eta kontroletik kanpo zeudenen esku egon zen, baina Nazionalen bandoan hilketa hauek agente militarrek onartu egiten zituen, eta baita antolatu ere, herriaren morala hondatzeko eta erresistentzia zapuzteko. ┐

Hildako hauen kopurua jakitea zaila da, baina gerraren ondorioz hil ziren pertsonen, gaixotasun, elikadura eskasa, erbesteratzea, eta erretagoardian hildakoak... gehitu behar zaizkie.

Ondorio demografikoaz gain, ekonomikoak (ekoizpenak behera egin, merkatu beltza sortu...), politikoak (sistema autoritarioa ezarri, askatasun zein eskubideak debekatuz...), sozialak (erbesteratzea, bazterketa, batasun linguistikoa, nazionalkatolizismoa ezartzea...) egon ziren ere, ERK.a sasoiko itxaropena desagertu zelarik. ┐